


## UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Azpiegitura eta ingurumena (2020/11/04)</b>  Hurrengo saioa: (2020/11/25)	Udaletxeko obra	Obra urtarrilaren amaierarako bukatzea espero da. Leader deialdiko epea berez abenduaren 31 artekoa da, baina COVID19agatik uste da otsaila bitarte luzatuko dutela, automatikoki. Hala ere, luzapena eskatu egingo da, badaezpada Dagoeneko teiltua bukatuta eta ganbarako zorua nibelatuta dago.	Ostatuko parrilaren proiektua osatzen joan
	Alegiako errepidearen bulebarizazioa	Azaroaren 9an Foru Aldundiko Errepideetako arduradunekin Alegian bertan elkartu eta obraren planteamendua adostuko da: "zona de coexistencia" deitutako tramoak (oinezkoak+autoak) frontoi ertetik Errotako zubirainokoa izango da, eta espaloi gorritza nola margotu definituko da.	Proiektua adostuta dagoenean herritar guztiei zabaldu
	Jolas parkea Itsason	Osasun Saitetik diru-laguntza jaso da jolas parkea berritzeko. Aurreikusten da oraingo ekipamendua kendu eta bi espazio sortzea: kolunpio eta txirristadun gazteluaz gain, kantxa saskibalo saski eta porteriarekin. Azken zati honen zorua belar artifizialaz estaliko da.	Miriam arkitektoak egin duen proiektua ekipamendu enpresarekin partekatu, gauzatzeko

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Ekimen sozio-kulturalak (2020/11/11)</b>  Hurrengo saioa: (2020/12/02)	Euskaraldia	Herri ekimen bereziak egiteko zailtasunak ikusten ditugun arren, Euskaraldiari bere lekua eskainiko diogula erabaki dugu. Horretarako Idurre Eskisabelen eta Lorea Agirren mahai-inguruetako bat aukeratzea izan da sortu den ideietako bat. Euskaraldia azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean izango denez, proiektuorako proposatutako datak azaroaren 27a edo 28a izan dira.	Idurre Eskisabelekin edo Lorea Agirrerekin harremanetan jarri eta gure ekimenaren berri eman
	Jubilatuen eguna	Aurten Jubilatuen eguna ospatzeko aukera handirik ez dugu ikusten baina adinez aurrera doazenekin detaile bat izatea adostu da. Herriko produktuen lote bana izango dute eta abenduan zehar egingo zaie bisita.	Herriko Produktuen batzordearekin koordinatu



LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
<b>Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2020/11/18)</b>  Hurrengo saioa: 2020/12/09)	Euskaraldia eta Emakumeen Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna	- Itsasoko Udala parte aktiboa izanez, egunez egun herriko whatsapp taldean Euskaraldiko aipu, gomendio edota datu interesgarriak zabalduko ditugula adostu da - Arigunearen logo identifikagarria udaleko sarreran jarriko da	Egunero whatsapp taldean aipu, datu interesgarri edo gomendioak zabaldu
		<b>Emakumeen Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna</b> azaroaren 25ean izaten da eta aurten <b>Euskaraldia</b> ere garai berean ospatzen da. Horregatik, bi erronka hauekin ekintza bateratu bat antolatu dugu: Emakundek antolatutako "Euskara eta Feminismoa bidelagun" jardunaldietan burututako mahai-inguru bateko proiektzioa emango da eta ondoren solasaldia ere izango da. Mahai-inguruko protagonistak Idurre Eskisabel eta Lorea Agirre dira eta generoaren ikuspuntutik hizkuntza ohiturak aztertzen dituzte bertan. Ekimen hau azaroaren 28an egingo da, 19:00etan, osasun neurri guztien bermearekin. Lorea Agirrerekin harremanetan egon gara eta Itsasora etortzeko gonbitea egin zaio.	Jakinarazpena herritarrei bidali